

LUMA BERRIEN AZTARNAK
 IONE GOROSTARTZU



Irudia:
 Kristina Fernandez

NOR DA

Ione Gorostartzu
Etxebeste

Berastegi, 1984.
 Historia eta irakasle ikasketak; Idazle Eskolako ikasle ohia.
 Duela gutxi kaleratu du bere lehen poema liburua ("Des egiten", Elkar).

Erdi irekia utzi du atea, badaezpada ere. Inguratzen denean inguratu, ikus dezala lanean ari dela; indarrez sakatzen ditu teklak, fundamentua eta amorrazioa iradokitzen dituen erritmoan.

Noiz etortzen da? Demagun ipuinaren hasieran inguratzen dela; denborarekin dator, ez baitu lekua ezagutzen. Koadernoko apunteei jarraiki iritsi da. Oinez igo ditu eskailerak, solairuak kontatzerakoan, hauek ez baitute zerbakiarik, beheko pisua kontuan hartu-ez hartu hausnarrean.

Edo, beharbada, ez, agian hobe da ipuinaren erdialdean edo iristea, behin pertsonaia bideratu

antza denean; demagun bigarren solairua izanik ere, igogailua hartzen duela, praken gerrikoak traba egiten baitio eskaileratan gora. Demagun igogailutik atera eta zuzenean egiten duela atera, bere bizitza osoan, egunero, goizeko zortzietan bide haxe egingo balu bezala. Iristeagatik, irits liteke beranduago ere, kontakizunaren azken lefroetan, edota, behin hasita, baita azken irakurraldiaren ostean ere, duda-mudako zatiak kolore gorriara aldatutakoan. Baina ez, nahiago lehenago izatea, aukera oro, edo gehiago, behintzat, zabalik dauden lerroen batean.

Iristen da bai, halako batean, eta ate zirrikitutik ikusten duena zera da; ile beltz-beltzeko emakumea, eta azkazal gorriak tiki-taka ordenagailuari emanaz. Ez dio aurpegirik sumatu, kokotsa ia lepoaren kontra ari baita, idazteko behar dena

baino gehiago jaitsiz burua; oraindik ez du, beraz, ez begirik, ez sudurrik edo ezpainik, ezta piercingik edo modelo famatu bat gogoraziko dion oreztatxorik ere emakumeak.

- Epa... barkatu, garaiz al nator?
- Oraindik bizi zara, behintzat.
- Ez da gutxi.

Orduan baino ez du jaso burua gure emakumeak, hemendik aurrera idazlea deituko diogunak, konfiantzan.

Gaiztoa. Zazpiko bat, eskuzabalegi izan gabe, lehen begiratuan. Gaztea, luzaroan gazte mantentzeko itxura duena; gorputza gogor itxurakoa, ukitzeo gogoia pizten duen horietakoa. Betile handiak, begiak handiago egiten dizkietenak. Ile motzak, apurren bat luzatzen utziz gero, kizkur bihurtzeko tankera du.

- Eseri lasai. Oraintxe bertan... maleta egiten ari zara.
- Oporretara?
- Ez.
- ...
- Dena jakin nahi duzu, edo?
- ...
- Ausarta, azkarra, planta hotzekoa.
- Ondo da.
- Hizkera argia, zehatza, baina justukoa. Ez kontu-kontari aritzen den horietakoa. Ulertzen?
- Esan behar dena esan, eta kito...
- Esan behar dena ongi esan, eta kito. Izena... ez dakit...
- Ba... Unai?
- Unai? Ez, ez, ez. Zerbait... urbanoagoa pentsatua nuen. Alex, edo?
- Alex?
- Jonhatan.
- Bueno. Nahiago, aukeran.
- Hilketak bat duzu buruan.
- Hilketak?
- Hilketak bai, maitalearena.
- Hara.

Baina maletan ez daramazu pistolarik. Zerbait inprobisatuagoa nahi nuen. Amorantearen semeak pilotan irabazitako trofeo bakarra, brontzeko, bulegoko bigarren apalean egoten dena... garbitzaileak asteen hirutan hautsa kendu ondoren zentimetro batzuk lekualdatzen du, beti, andrearen amorrurako.

- ...
- Zer diozu?

Ione Gorostartzu
Demagun

- Ez nuen horrelakorik espero... zugandik. Nobela beltza? Arrosa?

- Ez, ez. Kontatu nahi dudana zera da, pasioa, desioa. Zerbait uko egiteko zure ezintasunak zerbait hori gorrotatzera zaramatza. Bueno, garaiz heldu zara, oraindik ez dago hildakorik.

Emakumea, barka, idazlea, aukeratik altxatu da, lehen aldiz. Eta gizonak, dagoeneko protagonista dei geniezaiokeenak, haren gerrialde estua sumatu du ipurtaldean neurri justu eta jostagarrian zabaltzen dena, zapata takoidun gorrietara iritsi arte begiekin jarraitu dituen hanketan barrena.

- Baldintzak.
- Hasiberria zara, ezin duzu asko eskatu.
- Adostu beharko dugu zera, noraino naizen zure esku...

Idazlearen hatzak, lehenik, eta ezpainak, gero, sentitu ditu protagonistak bere hitzak estaltzen, eta jarraian gainean eseri zaio, hanka-zabalik, eta gonak apur bat gora egin du haren izterrak luzatuaz. Orain protagonistaren buruan, lepoan, dabilta haren eskuak, eta aurpegi parean, likrazko nikiaren azpitik, bi titiburu suma ditzake berari begira.

Demagun saiatu, saiatzen dela ihes egiten. Ez dela honetara etorri, andrea zain duela, bera nobela batean noiz irtengo, kuadrillakoei hura erakusteko, eta, zergatik ez, agian berak ere bigarren mailako pertsonaiaren bat lortzeko... baina ezetz, ez duela hura ez den inorekin larrutan egiteko asmorik.

Zertarako balioko luke? Idazlea gainean dabilkio jadanik, aurrera, atzera, arropak tiraka erantziz, lepoan kosk eginez, eta protagonistak ere orain arte atzera botata, zabal, zituen besoak idazlearen ipurtaldera daramatza, eta, oso luzeak ez dituen arren, azkazalek pantiak apurtzen dituzte. Aukeratik altxatzen da, idazlea besoetan, mahai gainera bultzatzen du, eta azpian hartzen. Bularretatik lepora, belarritarra miazkatzen du, idazlea, intziri artean, berriro gain hartzen saiatzen den bitartean. Krask! entzundakoan burua altxatzen du protagonistak; ordenagailua dakusa lurrean, osorik baina pantaila pitzatuta. Bere parean apalak, eta horietatik bigarrean, karpeta eta artxibagailu artean dirdiratsu, pilotari baten brontzeko irudia, besoa atzera eginda pilotari emateko keinuan. Protagonista ez da saiatu begiak kizkurtu eta urre kolorezko hizkiak irakurtzen.